

Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren mugak: feminismoa, maitasuna eta maitemintzearen arteko tentsioak gazteen bizipenetan

(Limits of equality between women and men: tensions
between feminism, love and falling in love in the
experiences of young girls and boys)

ESTEBAN, Mari Luz

Euskal Herriko Unib. (UPV/EHU). Filosofia eta Hezkuntza
Zientzien Fak. Tolosa hiribidea 70. 20018 Donostia

Komunikazio honek maitasun erromantikoak genero ezberdintasunetan duen eraginaren inguruan egindako ikerketa bat hartzen du abiapuntu, zenbait gazteri egindako elkarriketetan atera diren ideiak eta gatazkak aurkeztuz, hala nola, emakume gazteek berdintasuna eta maitemintzea erlazionatzen/kontrajartzen dituztenean eta bikote barruan ematen diren kontratu eta negoziazioen inguruan sorturikoak. Betiere gaur egungo gizarte (ustez) berdintzailean gazteak bizitzen ari diren zailtasunak eta eragozpenak hobeto ulertzeko asmoz.

Giltza-Hitzak: Maitasun erromantikoa. Maitemintzea. Feminismoa. Berdintasuna. Gazteak. Generoa.

Esta comunicación toma como punto de partida la investigación realizada en torno a la incidencia del amor romántico en las diferencias de género, y presenta las ideas y conflictos reflejados en la encuesta realizada entre diferentes jóvenes, tales como aquellos que surgen cuando las mujeres jóvenes relacionan/contraponen la igualdad y el enamoramiento y los que surgen en los contratos y negociaciones que se dan dentro de la pareja. Con el fin, siempre, de llegar a comprender mejor los obstáculos y dificultades que viven los jóvenes en la actual sociedad (supuestamente) igualitaria.

Palabras Clave: Amor romántico. Enamoramiento. Feminismo. Igualdad. Jóvenes. Género.

Cette communication prend comme point de départ, la recherche réalisée autour de l'incidence de l'amour romantique dans les différences de genre et présente les idées et les conflits reflétés dans l'enquête réalisée auprès de différents jeunes, comme ceux qui surgissent lorsque les femmes jeunes mettent en relation/opposition l'égalité et le fait de tomber amoureux et ceux qui naissent des contrats et des négociations qui se créent au sein d'un couple. Dans le but, toujours, d'arriver à mieux comprendre les obstacles et les difficultés que vivent les jeunes dans la société actuelle, (censée être) égalitaire.

Mots Clés: Amour romantique. Tomber amoureux. Féminisme. Egalité. Jeunes. Genre.

1. SARRERA¹

Artikulu honek maitasun erromantikoak genero ezberdintasunetan duen eragina aztertzen duen ikerketa bat hartzen du abiapuntu², non lau feminista gazte eta haietako baten mutil laguna elkarriketatzeko aukera izan dut, guztiak 21 urte baino zaharra-goak eta 30 urte baino gazteagoak³.

Elkarriketa hauetan atera diren zenbait elementu deigarriak eta esanguratsuak dira, ideologia parekidea partekatzen dituzten neska eta mutilen artean ematen ari diren tenkadura edo gatazken agerpen, zantzu gisa hartu behar ditugunak, laginaren tamainak ez baitu ondorio argi edo behinbetikorik ateratzen uzten.

Tentsio hauen artean bi egitate nabarmenduko genituzke. Lehena, harreman heterosexualak dituzten emakume gazteek emakume eta gizonen parekidetasuna eta maitemintze bizipena erlazionatzeko orduan egin duten uztarketa arazotsua. Euren diskurtsoetan antzeman da bi esperientzia arlo horien bateratzea ez dela beraientzat beti automatikoa edo erraza. Eta horrek kontraesan adierazgarrien sorburua da. Ager-tu zaigun bigarren tentsio-unea bikote barruan bideratzen diren negoziazioen kudea-ketarena izan da. Euren arteko kontratu agerikoei erreparatuz gero, eta aurrekoarekin loturik, negoziazio hauek nolakoak diren, nola gaurkotzen diren edota bertan behera gelditzen diren ikustea (azken hau, jaia eta deskontrolaren bizipena eta erabileraren eraginez, esaterako) hagitx interesgarria izan liteke bai pribatuki baita jendarte maila-ko emakume eta gizonen arteko kontratuak aztertze bidean.

Nago gatazka gune horien azterketa gaur egungo jendarte (ustez) berdintzailean gazteak bizitzen ari diren zailtasunak eta eragozpenak hobeto ulertzeko baliagarria izan daitekeela, kontuan harturik maitasuna emakumeen eta genero menperakuntza ulertzeko esparru ezin pribilegiatuagoa dela.

Baina azterketa hau era egokian kokatu ahal izateko, hasiko gara parekidetasun arloan ematen ari diren zenbait eraldaketa eta kontraesan, batetik, eta bestetik, gure orden sozial, kultural eta ekonomikoari dagokion maitasunaren eraikuntza eta erregi-men erromantikoa⁴ zirriborratzen.

1. Irantzu Fernandez, Maggie Bullen eta Edorta Arana-ri eskerrak eman nahi dizkiet artikuluari egindako ekarpenengatik.

2. Ikerketa hau Espainiako Ministerio de Ciencia e Innovación (MICINN) delakoak lagunduriko "Amor, salud y desigualdad: identidades de género y prácticas de mujeres" (102/2004, I+D, Instituto de la Mujer) izenburua izan zuen. Bertan, artikulu honen egilearekin batera, zientziaren historialari batek (Rosa Medina Doménech) eta psikiatra batek (Ana Távora Rivero) hartu dute parte.

Estebanek buruturiko lanaren ardatz nagusietako bat feministen irudikapen eta bizipenen azterketa izan da. Horretarako, 15 emakume feminista eta emakume feministekin maitasun harremanak dituzten 3 gizon elkarriketatutak izan dira, betiere pentsatuz feministen bizipenak aztertzea gure kulturalan nagusiak diren maitasun agindu kulturalak baina aldi berean beraien aurrean sor litezkeen ekarpenak, erresistentziak eta gatazkei hurbiltzeko aukera ona izango litzatekeela.

Momentu honetan, Mari Luz Esteban-ek, Carmen Díez Mintegui-k, Maggie Bullen-ek, Jone Miren Hernandez-ek eta Elixabete Imaz-ek hasi dute beste ikerketa proiektu bat, Espainiako Ministerio de Ciencia e Innovación (MICINN) delakoak, 2009ko I+D+I deialdi barruan lagundua, "Continuidades, conflictos y rupturas frente a la desigualdad: relaciones de género y prácticas corporales y emocionales en las/os jóvenes vascos" izenburua daukana.

3. Geroago emango ditut berriemaile hauen zenbait ezaugarri gehiago.

4. William Reddy-k (1997) sorturiko *erregimen emozionalaren* kontzeptua oinarri harturik, *erregimen erro-*

2. FEMINISMOA, BERDINTASUNA ETA GAZTEAK

XXI. mendearen hasieran egoera paradoxikoa bizitzen ari gara gure jendartearen, neska eta mutil gazteentzako berariazko ondorioak dituena. Balio feministak hedatu badira ere, *larrosa eta urdinera* eta gaindituak ziruditen emakumezko-tasun eta gizonezko-tasun arau zaharkituenerako atzerabuelta akritikoa ere ematen ari da (de Miguel, 2008). Feminismoaren lorpenak (maila teoriko, politiko eta egunerokotasunekoak) ugariak izateaz gain objektiboak dira; halere, hainbat emakume gaztek uko egin ohi diote jendaurrean euren burua feminista aurkezteari. Arrazoiak asko litezke baina, Ana de Migueli jarraituz, esan beharko genuke ez direla gutxiestu behar menperakuntza sistema batek bizirauteko dituen baliabideak eta ezaugarriak, hala nola, ikusezintasuna eta derrigortzeko ahalmena (ibidem).

Ikusezintasuna ez da jendarte berdintzaileen ezaugarria soilik, mota eta denbora guztietako jendarteetako emakumeek ukatu eta ukatzen baitute emakume eta gizonen arteko aukera ezberdintasuna egon badagoela, beste gauza batzuen artean, “gauzen orden natural eta ohikoarekin” mozturrotua dagoelako. Beste aldetik, gaur egungo gazteek ezberdintasuna iraganeko kontua dela pentsatzeko joera daukate, euren amen kontua, alegia, eta erabat ikusezin egiten zaizkie eskubideen gauzatzearen bilakaera historikoa, teoria androzentrikoen argudioen sorrera eta sustatzea, edo feminismoaren aurrean sistemak berak dituen erreakzio moduak (ibidem). Prozesu honetan, jakina, aparteko papera dute hedabideek eta gazteen kontsumo praktikek.

Ondorioz, neska gazteek genero arau ezberdintzaileak onartzeko eta, Susan Faludik (1991) nabarmendu duenez, bi ideia faltsu sinisteko joera dute: lehena, sexu berdintasun giro batean bizi garela eta feminismoa iraganeko kontua dela, eta bigarrena, sexu berdintasunak emakumeen bizitza estresatu egin duela, emakumeak zoriogaitzokoagoak eginez⁵.

Hala ere, eta nahiz eta gazteen inguruan egiten diren inkesta eta ikerlanek, oro har, joera homogeneousatzaileegia izan, zaila da gazteen ideologiak, bizipenak eta jarrerak uniformizatzea, sektore anitzak bereiz baititezke euren artean faktore ezberdinen arabera: genero, klase, etnia, jarduera sexuala, ideologia, etab. Adibidez, gaur egun, eta nahiz eta azken bi hamarkadetan dextente igo den batez besteko adina mugimendu feministakideen artean, badaude Euskal Herriko hainbat zonaldetan gazte talde feministak, hausnarketa, ekintza eta jarduera propioekin, euren artean aldeak badituzte ere. Gure ikerlanean elkarrizketaturiko neskak, esate baterako, ekintzaile feministak dira talde ezberdinetan.

Beraz, hainbat egilek azpimarratu dutenez⁶, oraindik arakatzeko dagoen gazteen esperientzien aniztasun eta konplexutasun horri hurbildu ahal izateko, ikuspegi kualitatibo, sakon eta zehatzen erabilera komenigarria liteke. Beraz, artikulua honetan, gaur egungo gazteen bizipenei egin dakiekeen irakurketa anizkoitz eta kualitatibo horretarako ekarpen xumea baino ez da.

mantikoa, testuinguru historiko eta geografiko batean dagoen maitasunaren orden kultural eta arauemailea adierazteko erabiltzen nago.

5. Ikus de Miguel (2008:35-36).

6. Ikus esate baterako del Valle *et al.* (2002).

3. MAITASUN ERROMANTIKOA ETA GENERO EZBERDINTASUNAK

Maitasuna kultur ideologia eta jendarte eta banako jardueren eratzaile gisa hartu beharko genuke, genero harremanen eta ezberdintasunen eraikuntzaren osagai nagusietakoa, baina baita ezberdintasun horien makineria ulertzeko lehentasunezko ikergaia ere (Esteban, Medina, Tavora, 2005)⁷.

Azken bi mendeetan, maitasunak, pentsamendu, emozio eta ekintza eredu konplexu gisa (Tennov, 1979:173), paper ezin garrantzitsuagoa izan du Mendebaldean subjektu moderno deitzen dugunaren eraketan (subjektu *emocionala* dena) eta genero, klase eta etnia harremanen eraldaketan, gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasunen ideologia berria indartuz. Horrela, emozioak eta maitasuna etengabe azpimarratzen dituen testuinguru historiko honetan, subjektuaren barrualdea/kanpoaldea desberdindu egin dira eta norbanako kontzientzia eraiki eta nabarmendu, eremu pribatu eta publikoaren bereizte eta ezkontza eta maitasuna lotzarekin batera. Hau dena, sekularizazio testuinguru batean non maitasunak iraganean erlijio bide-tik bilatzen zen traszendentziaren zentzu galdua bereganatu duen (ibidem). Ondorioz, maitasuna banako eta talde ekintzaren motore funtsezkoa bihurtu da gure artean (Evans, 2003)⁸.

Aldarte honetan nagusi den ideologia erromantikoa hainbat mito eta ideien iturburua da: esate baterako, maitasuna norberaren kontroletik at dagoela, ahalgutziduna dela eta jendarte ezberdintasunen gainetik ezarria dagoela; edota zeloak maitasunaren neurria direla eta maite duenak ezin duela ezer eskatu. Honetaz gain, maitasun araubide edo ideologia honek familia, kide-tze, elkarbizitza harreman eta, azken finean, antolakuntza sozial konkretuak bultzatzen ditu, betiere bikote (heterossexual) ideologiaren gainean eraikiak, familia (zentzu biologiko/ondorego eta ezkontzakoan), monogamia, elkarbizitza eta umegintza estuki lotuz.

Estatu Espainarreko leku ezberdinetan azken urteetan ikasle eta gazteekin burutu diren hainbat inkesten emaitzak kezagarriak dira, behin eta berriro agertzen diren mito edo balioak direla-eta, hala nola, emakumeek ezetz esaten dutenean baietz esan nahi dutela, edo gazte kopuru esanguratsuak uste izana “normala” dela (edo garrantzi gutxi duela behintzat) mutil batek une zehatz batean erasokor agertzea bere bikotearen aurrean. Ideia hauek, hurrengo atalean laburtuko ditudan Euskal Autonomi Erkidegoan egindako zenbait ikerketen emaitzen ildo beretik, argi uzten dute aldaketak egon badaudela harreman eredu-tan baina bai neskek baita mutilek ere eskema ez berdintzaileak edota emakumeentzako zapaltzaileak izan litezkeenak ere badituztela.

4. EUSKAL HERRIAN EGINDAKO HAINBAT IKERKETEN EMAITZEN INGURUAN

Irantzu Fernandez-ek (2009), 1990tik aurrera, Euskal Autonomia Erkidegoan gazteekin egindako hainbat inkesten berrikuspena hartuko dugu atal honetarako oinarri modura⁹.

7. Ikus baita Esteban eta Távora (2008).

8. Ikus Esteban, Medina eta Távora (2005:210).

9. Hauexek dira Fernandezek berrikusitako inkestak: Elzo Imaz, F.J. (Zuz.) *Jóvenes vascos 1990*. Gobierno Vasco-Deiker Universidad de Deusto; *El proceso de socialización en los/las jóvenes de Euskadi*. *Jóvenes vascos 1994*. Eusko Jaurlaritz. Gasteiz, 1994; *Euskadiko gazteak 2000*. Eusko Jaurlaritz. Gasteiz, 2000;

Inkesta hauetan, *afektibitatea eta sexualitatea* errepikatutako gaiak dira, nahiz eta gai biak maila berean ez gelditu¹⁰.

Orokorrean, eta mutilekin alderatuta, neskek garrantzi gehiago eman ohi diote bai maitasunari orokorrean baita senide eta lagunekiko harremanei.

Bikote harremanei dagokienez, Ana Rincon (2001)¹¹ ikertzaileak egindako azterketan, berdintasuna eta osagarritasuna garrantzitsutzat jotzen direla ikus daiteke, komunikazioa, konfiantza, bikote proiektu komuna eta lanen banaketa zuzena aldarrikatzen direlarik. Baina, harutzago joanez eta *berdintasunaren berniza* altxatuz, ikus daiteke afektuen ardura nagusia neskena izan ohi dela eta bikote proiektu ideal komun horrek ez duela eragin berbera mutil zein neskeengan. Hau da, bikotearen inguruko estereotipo tradizional eta ohiko antolaketa mantendu egiten dira.

Beste ikerketa batek (Cantera, Estébanez, Vázquez, 2009;143)¹² argi utzi du emozioen kudeaketan emakumeek duten nagusitasun horrekin batera, feminitate eredu tradizionala sendotuta dagoela.

Bide beretik, Bilboko gazte unibertsitarioekin egindako beste proiektu batean ikusi da gazteek, bikote eredu idealaz hitz egiterakoan, berdintasunezko harremanak dituztela xede, baina menpekotasun harremanak sustatzen dituzten balio eta ideiak ere mantentzen dituztela, besteak beste, emakumeek babestuta egon nahi izatea edo gizonek bikotekide politak nahi izatea (Amurrio *et al.*, 2008:10)¹³.

5. GURE IKERLANAREN BERRIEMAILA GAZTEEN BERRI

Guk buruturiko ikerketan berretsi da elkarrizketaturiko emakume gazteen ustez, maitasuna funtsezkoa dela bizitzan eta oso presente dagoela euren balio eskema eta proiektuetan.

Rincon, Ana. *Portaera maskulinoen eta femeninoen ereduak eta erreferenteak euskal gazterian*. Emakunde. Gasteiz, 2001; *Euskadiko gazteak 2004*. Eusko Jaurilaritza. Gasteiz, 2004; *Gazteen joerak 2005*. Gazteen Euskal Behatokia; *Gazteen joerak 2006*. Gazteen Euskal Behatokia; *Gazteen adierazleak, Euskadiko gazteen panoramika 2007*. Gazteen Euskal Behatokia; *Euskadiko gazteak 2008*. Eusko Jaurilaritza. Gasteiz, 2008; *E.A.E.ko nerabeak*. Hurbilketa ahalduztetik abiatuta. Emakunde. Gasteiz, 2008.

10. Hain justu gazteekin gehien lotzen diren gaiak astialdia, sexualitatea eta esparru profesionala lirateke (ibidem).

Laburbilduz, esan genezake azterketetan sexualitatea eta afektibitatearen arteko harremana agerian dagoela. Hala ere, sexualitateari berezko garrantzia ematen zaio ikerketetan. Gazteen arteko sexu-harremanen inguruko informazioa eta heziketa erdigunean kokatzen delarik. Maitasuna ere sexualitatearekin uztarturik agertzen zaigu sarritan, baina betiere sexualitatea oinarri duelarik. Azkenik, afektibotasuna bikotearekin, familiarekin eta gehienbat lagunekin ageri zaigu. Adin honi "dagokion" adiskidetze prozesua mahai gainean jartzen dute (Fernandez, 2009:50).

11. Ikus Fernandez (2009:53).

12. Izan ere, nesken gehiengoak ez du biolentzia psikologikoa antzematen eta "jokabide txarrak" barkamen eta maitasunaren bitartez aldatu daitezkeela uste dute.

13. *Bilboko gazte unibertsitarioak sozializatu diren testuinguru kulturean maitasunari buruz dauden ideiak eta baloreak, maitasun ereduak eta erakargarritasun eredu femeninoak nahiz maskulinoak gizonek men-derapen egituren berarenak dira eta ideia eta balore horiek dira bikotearen harreman afektiboak eta sexualak bideratzen dituztenak* (ibidem:16; ikus Fernandez, 2009:54).

Maitasun sexualari dagokionez, berriemaile guztiek dute bikotea elkarrizketa egin zaienean. Gainera, Eider (21)¹⁴ eta Galder (23) bikote dira duela bi urtetik hona, baina Eiderrek aurretik izan ditu harremanak neskekin; Josebek (28) neskekin bakarrik, eta Ainhoak (28) eta Edurnek (23), neskekin hurbilketa afektibo-sexualak izan badi-tuzte ere, harreman heterosexualak mantendu ohi dituzte.

Bostek jasotako maitasun eta genero heziketa ez da berdin-berdina baina bat izan ezik klase ertaineko guraso eta familiak dituzte eta ideologia aurrerakoietako giro batean izan dira heziak¹⁵.

Dena den, argi gelditu da euren sozializazio prozesuetan, orokorrean gertatzen den bezala, bikote ideologiak (heterossexuala) garrantzi itzela izan duela. Josebek, adibidez, gogor kritikatu du eskolan, familian eta kalean, harreman heterossexualak duten nonahitasuna. Ainhoak, bere aldetik, aipatu du bere amak nahiko gaztetatik animatzen zuela mutil laguna topatzera eta poz-pozik jartzen zela hola suertatzen zenean. Galderrek ere antzera hitz egin du, neska laguna duela jakinik bere ama oso kontent dagoela esanez. Badirudi oso klasikoak ez diren gurasoek ere bikote izatea-rena euren semealaben “normalitatearekin” lotzen dutela.

Baina mezu eta esperientzia “alternatiboagoak” ere nabaritu ditugu. Adibidez, neska guztiek jaso dute euren etxeetan bizitzan autonomoak izatearen beharra, eta gurasoek igorritako mezuak askotan maitasun eta bikote planteamendu hegemoni-koekiko kritikoak dira. Modu honetan, bai Eiderrek baita Edurnek ere etxean ikusi dituzten harreman ereduak ez dira guztiz ohikoak, euren aitek eta amek, esaterako, adiskide, jarduera eta espazio propioak baitituzte.

6. HARREMANETAKO TENTSIOAK ETA PAREKIDETASUNERAKO ZAILTASUNAK: ZENBAIT ZANTZU

Duela bospasei urte, Bilboko Kukutza Gaztetxean antolatu zen gazte feminista jardunaldi batean, 30 inguru urteko neska batek, bera feminista baten alaba zela eta bere ibilbidean feminismoak garrantzi handia zeukala kontatu ondoren, hauxe botu zuen: “... *baina gero maitemintzen zara...*”, eta zintzilik utzi zuen esaldia. Lau hitz horiek iltzaturik gelditu zitzaizkidan gogoan, une horretan jabetu bainintzen maitemintzea (batez ere maitemintze heterossexuala, gehitu beharko genuke) lehentasunezko abagunea izan daitekeela jarduera feministan sor daitezkeen kinkak eta kontraesanetan sakondu ahal izateko.

Sarreran aipatu dudan moduan, berriemaileekin izandako elkarrizketetan ildo horretatik tentsio-une adierazgarriak antzeman izan dira.

Harritzekoa izan da, adibidez, emakume gazteek etxeko lanen banaketan omen dauden gabezien inguruan egindako aipuak. 30 urte baino zaharragoak diren feministek, euren eta euren hurbilekoen elkarbizitzetaz hitz egiterakoan, gizon eta emakumeen arteko eztabaidak eta desadostasunak aipatu dituzte, jakina, baina aldi berean egiaztatu dute euren inguruko gizonen jarrera berdintzaileak dituztela, orokorrean eta

14. Parentesi artean doan zenbakia adina da.

15. Josebe da gainerako guztietatik gehien apartatzen dena, familia langile baten alaba baita, aita, drogekin arazoak izan zituen, duela gutxi galdu zuen baina aita eta ama aspaldi zeuden bereiztuta.

etxeko lanak eta ardurak partekatzeke orduan. Gazteen artean, aldiz, denetarik somatu da. Adibidez Josebek, horren inguruan ezer zehatzik galdetu gabe, baieztatu du (baina ez da bakarria izan) mutil batekin bizi diren bere adiskide neska gehienek badauzkatela istiluak etxeko lanen banaketa dela medio. Halere, esan behar da elkarriketaturiko neska gazte bat bakarrik bizi dela bere bikotekidearekin eta kasu horretan banaketa parekidea dela.

Laginaren tamaina txikiak ez du kontu honetaz (ezta ondoren aipatuko ditugunez ere) ondorio zuzenik ateratzen uzten; beraz, zantzu gisa hartu behar ditugu emaitza hauek.

Edozein kasutan, etxeko lanen banaketan dagoen desoreka horrek bi interpreta-zio izan ditzake: batetik, mutil gazteek, baita espazio feministetatik hurbil daudenek ere, ez dituztela guztiz barneratuta jokamolde parekideak, adinagatik, edo ez dituztelako aukera izan zaharragoek izan dituzten inguruabar eta prozesu historikoak bizi ahal izateko, euren jokaera aldatzera lagundu/behartu dutenak. Baina egon liteke arazo honetan beste dimentsio bat hau bezain interesgarriagoa, nesken eta mutilen (emakume eta gizon) artean leudekeen eztabaidak eta gatazkak definitzen eta erregulatzen dituzten terminoekin zerikusia lukeena. Esan genezake etxeko lanen banaketarako ezintasun hau, maila publiko eta pribatuan, gizonen eta emakumeen artean ematen ari diren gainerako tentsioen metonimia bihurtu dela, oraindik lortzeke dagoen parekidetasunaren metafora sinboliko-praktikoa, abantaila batekin, beste eremu guztietan sortzen diren zailtasun eta korapiloen aurrean identifikatzeko, bizitzeko eta formulatzeko errazagoa dela.

Bigarren aurkikuntza-zantzu bat ere agertu da elkarriketetan, bikote barruan ezartzen diren kontratu eta negoziazioei dagokiena. Eurnek (23), adibidez, bera baino nagusiagoa den mutil batekin maitemindu berri eta bere harremanaz pozik dagoena, kontatu du bere lagunak presionatu egiten duela hankak depilatzeko edo itxura *femeninoagoa* jorratzeko, ekintza horiek bestearekiko maitasunaren izenean egiten diren zeinuak direla argudiatuz. Bitartean, berak ez dio antzeko proposamenik inoiz egiten mutilari.

Kontratuekin jarraituz, Eider eta Galder, banan banan egindako elkarriketetan, ados etorri dira euren arteko hitzarmen esplizitu eta inplizitua nahiko parekidea dela eta horren adierazgarri eta zutabe dela biek daukatela askatasuna nahi duten bizimodu edo erabakiak hartu ahal izateko, lagun propioekin egoteko edo bikotez kanpo ligatzeko aukera barne.

Baina Eiderrek baditu bere kexak eta atsekabeak. Alde batetik, sentitzen du euren arteko harremana gehiegi mugatzen dela gauetan izan ohi duten intimitate sexual eta afektibora (asebetegarria biontzat), eta ordu horietatik aparte egin ohi dituzten jarduera bakanen ekimena berari dagokiola batez ere. Biok bakarrik egoteko denbora eskasiaren inguruan, Galderrek aipatu du aste burua¹⁶ motz gelditzen zaiela eta bere musika taldea¹⁷ eta militantziarekin loturiko ekintzek (biak daude elkarte ezberdinetan parte hartzen) denbora gutxi uzten diela. Edozein kasutan, badirudi bikote “alternatiboetako” neskek ere badutela sentsazioa harremanaren ardura beraiena dela.

16. Kontuan hartu behar da Eider bere herritik kanpo dagoela astean zehar, ikasketa unibertsitarioak egiten.

17. Rok musika talde batean jotzen du gitarra.

Beste aldetik, Eiderrek kontatu du asteburu eta gaueko jai giroan Galder moz-kortzeko joera duela eta, horren ondorioz, jarrera seduzitzaileak baina noizean behin lizunak eta zakarrak ere hartzen dituela, neskekiko gehienbat, eta portaera horrek kontraesanak dakarziola; batetik, jeloskor jartzen da bere mutil laguna bere aurrean beste neskeengana hurbiltzen ikusten duenean; bestetik, jendearekiko jokabide sar-koiegia iruditzen zaio, ez zuzena; eta hirugarrenik, uste du bere lagunak arazo bat duela alkoholarekin, aurre egin beharko liokeena.

Horretaz eztabaidatzen dutenean Galderrek onartzen du bere jarrera ez dela beti guztiz egokia, baina norberaren askatasuna defenditzeaz gain, festa giroko deskon-trolaren aurrean ezer gutxi egin daitekeela argudiatzen du nahiz eta berdintasunaren aldeko ideologia tinkoa izan¹⁸. Interesgarria da zakarkeria eta “deskontrol” horren inguruan egiten duen naturalizazioa, jokaera hori gizonei barru barrutik sor litzaiekeen zerbait bailitzan, drogaren bitartez azaleratu eta maila batean kudeaezina litekeena.

Askok laburtu dugun esperientzia honek interpretazio sakonagoak eta ezberdina-goak onartuko lituzke, jakina, baina argi dago Galderrek, akaso beste hainbat mutil berdintzaileek bezala, parekidetasunerako etenaldi espazio gisa irudikatzen eta bi-zitzen duela festa (eta berarekin doazen drogak edo bestelako ekintzak). Gertakari honetan askoz gehiago sakontzeko beharra adierazteaz gain, pentsa genezake ea antzerako espazio/denbora gehiago dauden eta zeintzuk diren.

7. ZENBAIT ONDORIO

Parekidetasunari dagokionez paradoxikoa den testuinguruan, gure kulturaren hegemo-nikoa den maitasunaren eraikuntza, bikote eta emakume eta gizonen arteko harre-manen ideologia ezberdintzailea sustatzen duena, emakumeen menperakuntzarako eremu nagusietakoa da, aukera berdintasunerako oztopo funtsezkoa.

Euskal Herrian gazteekin egindako hainbat ikerketak, Estatu mailan bideratu dire-nen ildo beretik, argi utzi dute maitasun esparruan neskek eta mutilek dituzten jarrerak eta bizipenak ez direla guztiz berdinak eta oro har kontraesanak direla be-raien eskema eta esperientzien ezaugarri lehenetarikoa.

Halere, kontuan hartu behar da gazte guztiak ez direla berdinak eta ez dituztela sozializazio prozesu berdinak. Esaterako, inguru feministetan diharduten neska eta mutilek jaso dituzten erreferentzia eta heziketa eta bizitzen ari diren esperientziak, maila batean, alternatiboak, hausleak, askeagoak dira. Baina, euren maitasun ha-rremanetan sortzen ari diren hainbat gatazka eta tentsiok adierazten dute oraindik badugula zer ikertu, ulertu eta aldatu parekidetasunerako bidean.

Baina ez dut gura artikuluko hau amaitu nire ikerlanaren ondorio funtsezko bat azpi-marratu gabe. Zailtasun eta kontraesan guztien gainetik, neska gazteentzat maitasu-na auto-ikasketa eta ikerkuntzarako eremu ezin hobea izaten ari da, norbere buruaz baina baita gizon eta emakumeen arteko harremanez eta gizarte ezberdintasunez orokorrean hausnartzeko tresna aproposa. Hain juxtu maitasunak emakumeen men-perakuntzan duen paperagatik.

Beraz, ikerkuntza feministan ere maitasunak aparteko lekua izan beharko luke.

18. Nirekin egindako elkarrizketan, Eiderrena egin ondoren burutua, zeharka bada ere, gai honetaz aritu zen.

8. BIBLIOGRAFIA

- AMURRIO, Mila; LARRINAGA, Ane; USATEGI, Elisa; DEL VALLE, Ana I. Violencia de género en las relaciones de pareja de adolescentes y jóvenes de Bilbao. Bilbao: UPV/EHU, 2008.
- CANTERA, Itziar; ESTÉBANEZ, Ianire; VÁZQUEZ, Norma. Violencia contra las mujeres jóvenes: la violencia psicológica en las relaciones de noviazgo. Bilbao, 2009.
- DE MIGUEL, Ana. "Feminismo y juventud en las sociedades formalmente igualitarias". Ikus: Revista de Estudios de Juventud, 83. zkia, 2008; 29-45 or.
- DEL VALLE, Teresa. (coord.); APAOLAZA, J.M.; ARBE, F.; CUCÓ, J.; DÍEZ, C.; ESTEBAN, M.L.; ETXEBERRIA, F.; MAQUIEIRA, V. Modelos emergentes en los sistemas y las relaciones de género. Madrid: Narcea, 2002.
- ESTEBAN GALARZA, Mari Luz; MEDINA DOMÉNECH, Rosa; TÁVORA RIVERO, Ana. "¿Por qué analizar el amor? Nuevas posibilidades para el estudio de las desigualdades de género". Ikus: Díez Mintegui, C.; Gregorio Gil, C. (coord.) Cambios culturales y desigualdades de género en el marco local-global actual. X Congreso de Antropología. Sevilla: FAAEE-Fundación El Monte ASANA, 2005; 207-223 or.
- ESTEBAN, Mari Luz; TÁVORA, Ana. "El amor romántico y la subordinación social de las mujeres: revisiones y propuestas". Ikus: Anuario de Psicología, 39. bol., 1. zkia, 2008; 59-73 or.
- EVANS, Mary. "What is this thing called love?". Ikus: Evans, M. (ed.) Love. An unromantic discussion: 1-31. Cambridge-UK/Malden-MA: Polity Press, 2003.
- FALUDI, Susan. Reacción. La guerra no declarada contra la mujer moderna. Barcelona, Anagrama, 1991.
- FERNANDEZ RODRIGUEZ, Irantzu. "Maitasuna nerabeen arteko genero sozializazio prozesuetan. Maitasunaren diskurtso eta praktikak. Jarraipen, tentsio, gatazka eta hausturen aniztasuna". Master amaierako lana. Ikasketa Feministak eta Generokoak Unibertsitate Masterra. Euskal Herriko Unibertsitatea. 2009ko Iraila.
- REDDY, William M. "Against Constructionism: The Historical Ethnography of Emotions". Ikus: Current Anthropology, 38. zkia, 1997; 327-351 or.
- RINCÓN, Ana. Portaera maskulinoen eta femeninoen ereduak eta erreferenteak euskal gazte-rian. Gasteiz: Emakunde, 2001.
- TENNOV, Dorothy. Love and Limerence: The experience of Being in Love. New York: Stein and Day, 1979.